



EMAITZAK

2026KO LEHEN HIRUHILEKOA

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HAU INFORMAZIOA EMATEKO HELBURUEKIN BAKARRIK PRESTATU DA

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

- 1/ 2026ko 1HHko DATU AIPAGARRIENAK
- 2/ FINANTZA INFORMAZIOA
- 3/ AURREIKUSPENAK
- 4/ ERANSKINAK

1/ 2026ko 1HHko DATU AIPAGARRIENAK

1.1 MAGNITUDE NAGUSIAK

ARRAKASTA KOMERTZIALEK ETA EMAITZEK NEGOZIOAREN BILAKAERA POSITIBOA ERAKUSTEN DUTE

Kontratazioa

2.883 M€**+% 42**

vs 2025eko 1HH

Salmentak

1.158 M€**+% 4**

vs 2025eko 1HH

Book-to-bill

2,5x

Eskari zorroa

17.960 M€**+% 11**

vs 2025/12/31

EBIT

63 M€**+% 10**

vs 2025eko 1HH

EBIT mj

% 5,4**ehuneko +0,3 puntu**

vs 2025eko 1HH

Emitza garbi egozgarria

40 M€**+% 12**

vs 2025eko 1HH

Jasangarritasuna



/ Kontratazio historikoa eta estrategikoa Taldearen etorkizunerako

/ Errekorreko eskari zorroa, hurrengo urteetarako jardueraren ikusgarritasun handiarekin


/ Salmenten hedapena, errentagarritasun operatiboaren aurrerapena eta emaitzaren bi digituko hazkundera

/ Aurrerapenak Jasangarritasunaren Gida Planean

1.2 KONTRATAZIOA

KONTRATAZIO HISTORIKOA HIRUHILEKO BATEAN

GUZTIRA (M€)




	2025eko 1HH	2026ko 1HH
Trenak	1.510	2.477
Autobusak	516	406

KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)

2026ko 1HH


- Tren-ibilgailuak
- Zerbitzuak
- Autobusak
- Soluzio Integralak eta Sistemak



KONTRATAZIOAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)

2026ko 1HH

- Espainia
- Gainerako Europa
- Amerika
- APAC eta gainerako mundua



- Pipelinearen indarra**, funtsezko geografietan tamaina ertain-handiko merkataritza-aukerak eta tamaina txikiagoko eta interes estrategiko handiko beste batzuk konbinatzen dituena.

/ **CAFen historiako tren-kontratu handiena sinatu da** Belgikan, eta beste negozio eta geografia batzuetatik jasotako kaptazioa gehituta, Taldearen kaptazioa hiruhileko baterako maila errekorrean kokatu da.

/ **Btb=2,5x** Talde osoan 2026ko 1HHan.

Btb=3,0x trenen segmentuan

Btb=1,2x autobusen segmentuan

/ 2026ko 1HHko trenen kontratazioan honako hauek daude sartuta (besteak beste):

- AM30 trenen hornikuntza SNCBrentzat (Belgika).
- Seinaleztapen-sistema Helsinkiko Metrorako (Finlandia).

/ **Solarisek**, bestalde, **484 autobus (% 98 zero emisiokoak) kontratatu** ditu eta horrek, beste behin, merkatuaren segmentu horretan jarrita duen **arretagunea eta lidergoa** erakusten ditu. Hiruhilekoan sinatutako eskarien artean, zero emisioko 200 autobus baino gehiago hornitzeko Suedian adostutako bi nabarmentzen dira.

/ **Europak** bildu du **kontratazioaren % 91** lehen hiruhileko honetan.

1.2 KONTRATAZIOA

TALDEAREN ETORKIZUNERAKO KONTRATU ESTRATEGIKOAK SINATU DIRA

/ 2026ko 1HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak



SNCB-RENTZAKO **TRENAK**
(BELGIKA)

- Esparru-akordioa Belgikako SNCB operadorearekin, AM30 trenen flota berria hornitzeko, gaur egun funtzionamenduan dituen unitateak berritzeko.
- Esparru-akordioak 180 treneko oinarrizko irismena du, eta beste 380 unitatetara (gutxi gorabehera) arte **handitzeko** aukera jasotzen du.
- Kontratuaren balioa **1.700 M€ baino gehiagokoa** da.
- **CAFek inoiz sinatu duen tren-kontraturik handiena** da.



SBTC SEINALEZTAPEN SISTEMA
HELSINKIRAKO (FINLANDIA)

- Helsinkiko Metroarekin sinatutako kontratua, CAFek garatutako **CBTC** (Communications-Based Train Control) **sistemarekin**, OPTIO izeneko, azpiegitura osoaren seinaleztapena modernizatzen.
- Aurrekoaren ondorioz, CAFek aurretik hornitutako M300 unitate-flotaren kontrol-zentroaren hornikuntza eta modernizazioa ere irismenaren parte dira, ibilgailuetan sartutako seinaleztapen-ekipo bateragarriekin parekatzen.
- CAFen **lehen kontratua CBTC**ren arloan (kasu honetan, GoA2n).
- **Bezero ezaguna** da, eta berriro ere konfiantza CAFengan jarri du.
- Kontratuaren bolumena **60 M€ baino gehiagokoa** da.



NOBINA OPERADOREARENTZAKO
AUTOBUS ELEKTRIKOAK (SUEDIA)

- Hitzarmena Nobina operadore suediarrekin, **Solaris Urbino 15 LE modeloko 103 autobus elektriko** entregatzeko.
- Ibilgailu berriek Stockholmen, Goteborgen eta Skånen eskainiko dute zerbitzua.
- Solaris etengabe ari da Nobina enpresarekin elkarlanean 2010etik, eta kontratu honek agerian uzten du beste behin bezeroak enpresan jarritako **konfiantza**.



AUTOBUS ELEKTRIKOAK
STOCKHOLMERAKO (SUEDIA)


- Suediako VR Sverige garraio-enpresarekin sinatutako kontratua, Stockholm **101 autobus elektriko** hornitzeko.
- Akordioaren irismenak honako hauek biltzen ditu:
 - Urbino 9 LE motako 5 autobus elektriko
 - Urbino 12 motako 47 autobus elektriko
 - Urbino 15 LE motako 22 autobus elektriko
 - Urbino 18 motako 27 autobus elektriko
- **Bezero ezaguna** Solarisentzat, duela hilabete batzuk 81 autobus elektriko hornitzeko beste kontratu bat jaso ondoren, gaur egun martxan dagoena.

1.3 ESKARI ZORROA

ERREKORREKO ESKARI ZORROA, ETORKIZUNeko JARDUERAREN IKUSGARRITASUN HANDIAREKIN

GUZTIRA (M€)

Autobusak
Trenak



Eskari zorroa /
Salmentak ratioa¹

Autobusak 2,0x
Trenak 4,2x

4,0x
2,1x
4,7x

/ Eskari zorroaren % **11ko gorakada** kontratazio handiari (batez ere trenen arlokoa) esker.

/ Eskari zorroaren **ikusgarritasun handia**, salmenten 4x-ko ratioan adierazita, eta trenbideko segmentuan 4,7x-ra igotzen dena.

/ Zorro honetan **ez daude sartuta** sinatutako esleipen hauek (haien **guztizko balioa 900 M€ ingurukoa** da):

- Kairoko (Egipto) metrorako birgaitzea eta mantentzea
- Napolirako (Italia) proiektu integrala, CBTC gidatze automatikoarekin, GoA4n
- Belgraderako (Serbia) aldiriko trenen hornikuntza

/ Zorro horretan ere ez dago jasota zorroko kontratuei lotuta dauden eta **bezeroek gauza ditzaketen etorkizuneko aukeren bolumen handia (>11.000 M€)**.

¹ Ratioa 2026/03/31n, 2025ean izandako salmenten arabera kalkulatuta.

2/ FINANTZA INFORMAZIOA

Hiruhileko eta urteko informazio historiko osoa eskuragarri
CAFen webgune korporatiboan, helbide honetan:

<https://www.cafmobility.com/eu/akziodunak-inbertsoreak/informazio-ekonomiko-finantzarioa/funtsezko-zifrak/>

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

SALMENTAK GORAKA, EMAITZA ETA MARJINA OPERATIBOA BEZALAXE

/ Ez dago aldaketarik Taldearen errentagarritasun-hobekuntzan eta hazkunde-joeran

(milioi eurotan)	2025eko 1HH ⁽¹⁾	2026ko 1HH ⁽¹⁾	Ald. 2026ko 1HH/2025eko 1HH ⁽¹⁾
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	1.118	1.158	% 4
USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT	57	63	+% 10
EBIT Marjinaren %	% 5,1	% 5,4	
Finantza arloko emaitza	(7)	(7)	+% 5
Finantza-sarrerak	6	4	-% 29
Finantza-gastuak	(13)	(12)	-% 9
Trukeko edo kanbioko aldeak	1	2	
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(0)	(1)	
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	3,3	1,8	-% 46
ZERGEN AURREKO EMAITZA	54	57	+% 7
Irabazien gaineko zerga	(16)	(16)	+% 1
Zergen ondorengo emaitza garbia	38	41	+% 9
Interes minoritarioak	1,6	0,9	-% 45
ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA	36	40	+% 12

/ **Hazkunde-zikloaren jarraipena**, salmenten urtetik urtera arteko % 4ko igoyerarekin.

/ **EBITak digitu bikoitzeko hazkundera** izan du eta 63 M€ra iritsi da. Ondorioz, marjina operatiboaren gorakada ehuneko **0,3 puntukoa** izan da.

/ **Finantza-emaitzak ez du aldaketarik** izan.

/ Hala, zergak ordaindu aurreko emaitza 57 M€-koa izan da (+% 7 urte artekoan).

/ **Gastu fiskalak ia ez du aldaketarik** izan. **Egotzitako emaitza garbia 40 M€-koa izan da, eta aurreko urteko aldi bereko zifra % 12an gainditu du.**

⁽¹⁾ Milioi eurotara biribildutako zifra absolutuak. Urte arteko aldakuntza, zifra absolutuak zehatz-mehatz kontuan hartuta, biribildu gabe.

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

SALMENTA BATERATUEN GORAKADA, AUTOBUSEK IZANDAKO IGOERAK BULTZATUTA

/ Bi segmentuetan jarduera handitu egin da, exekuzio-planean aurrez ikusitakoaren arabera

SALMENTAK

BATERATUA


+% 4



- Salmentek neurrizko hazkundea izan dute urtearen hasieran, exekuzio-planean aurrez ikusitakoaren arabera. Hain zuzen ere, plan horrek **hazkunde-tasa handiagoak aurrez ikusten ditu urtearen amaierarako.**

TREN ARLOA

-% 5




- **Ekialde Ertaineko gatatzak nolabaiteko eragina** izan du eskualde horretako tren arloko proiektuetan.

- Jaitsiera horrek, batez ere, material gurgildunaren segmentuko **urte arteko konparazioan eragina izan duen kontabilitate mailako efektuarekin du** zerikusia.
- Hiruhilekoan **jarduerak izan duen gorakadak** (amaitutako kotxeen kopuruak digitu bikoitzeko hazkundea izan du) **2026ko ekainerako joera-aldaketa** aurreratu du.

AUTOBUSAK

+% 35



- Salmenten **hazkundea**, nagusiki entregatutako autobusen kopurua handitu delako.

3/ AURREIKUSPENAK

3. AURREIKUSPENAK

CAF-ek AURREIKUSPEN ONEKIN EKIN DIO BERE PLAN ESTRATEGIKOAREN AZKEN URTEARI

/ Ezegonkortasuna nagusi den testuinguruan, CAFek 2026rako dituen aurreikuspenak aldaketarik gabe mantendu ditu

2026¹

Book-to-bill

≥1
Kontratazio
selektiboa

Salmentak

Digitu altu bateko
hazkundera vs 2025

EBIT eta Emaidza garbia

Errentagarritasunaren
hobekuntza vs 2025

Dibidendua

Emaidzen
bilakaerarekin bat
dator

FZG/EBITDA ratioa

Egonkortasuna
2025. urtearekiko

Jasangarritasuna

Jarduera handiagoko
testuinguruan
isurpenen murrizketa

¹ Aurreikuspen hauek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoen egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

4/ ERANSKINAK

4.1 KONTRATAZIOAREN XEHETASUNA

/ 2026ko urtarrila-martxoa aldian iragarri eta eskari zorroan sartu diren kontratuak

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK	ZENBATEKOA (etorkizuneko aukerak kanpoan utzi dira)
2026ko 1HH	SNCB	Belgika	Trenak / Tren-ibilgailuak	Tren arloko 180 kotxeren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	> 1.700 M€
2026ko 1HH	CBTC Helsinki	Finlandia	Trenak / Soluzio Integralak eta Sistemak	CBTC ezartzea, kontrol-zentroa hornitzea eta egungo flotako ibilgailu barruetako seinaleztapen-sistemak ordezkatzeta	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	60 M€ inguru
2026ko 1HH	Nobina	Suedia	Autobusak	103 autobus elektrikoren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 125 M€
2026ko 1HH	VR Sverige	Suedia	Autobusak	101 autobus elektrikoren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	

4.2 AGENDA

Hitzaldiak eta roadshow-ak

- **2026ko maiatzak 27**
Foro MedCap (Madril)
- **2026ko ekainak 11**
ODDO BHF Nextcap Forum (Paris)
- **2025eko irailak 10**
UBS Quo Vadis Industrials (Birtuala)
- **2025eko irailak 17**
Iberian Conference Caixabank-BPI (Madril)

Emitzen argitalpena

Akziodunen Batzar Orokorra

- **2026ko ekainak 13**
Akziodunen Batzar Nagusia
- **2026ko uztailak 30**
2026ko 1SHko emitzen argitalpena
- **2026ko azaroak 12**
2026ko 9Hko emitzen argitalpena



4.3 ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutzaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2025eko Urteko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.cafmobility.com) dago irakurgai, 8. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



www.cafmobility.com



**TRUST
IN MOTION**